



## BIZKAIKO CARITASEN OHARRA

**Caritaseko langile batek eta erabiltzaile batek joan den ostegunez, 2013.eko maiatzak 23, eraso egin zietela eta, Bizkaiko Caritasek ondorengo adierazi nahi du:**

Erasoak jasan zituztenei, beren senide eta adiskideei: gure babes osoa eta gure aitorpena, gure hurkotasuna orain eta aurrerantzean. Badakizue Caritas osatzen dugun guztiok bat egiten duguna zuon samin eta tristuran, eta, beste behin ere, gure babesa eman nahi dizuegu. Biktinez arduratu zareten guztioi, eskerrik asko bihotz-bihotzetik. Kasuak biztu duen jakin-min eta zalapartatik kanpo sendatzen jarraitu nahi dutela adierazi digute biktinek eta beren senideek.

Lanbidean eta lan-ibilbide honetan kide zaretenoi: pribatuan erakutsitako hurbiltasuna eta jendaurrean iritzia eman izana eskertu nahi dizuegu. Hirugarren sektoreko makina bat erakundek eta pertsonak helarazi digu bere adorea eta elkartasuna une zail hauetan. Beren arnasa lagungarri dugu bidean aurrera egiteko...

Caritaseko kideoi, kontratatutako langileoi, boluntariooi, bazkideoi, dohaintza-emaileoi eta, orokorrean, Bizkaiko Elizari: eskerrik asko inguruabar hauetan erakutsitako lasaitasunagatik, zuon laguntzagatik, zuon hurkotasunagatik eta –kasu askotan- zuon otoitzengatik. Gure egitekoaren sena ez da aldatu.

Osakidetzako eta Basurtuko Ospitaleko langile guztioi: eskerrik asko zuon profesionaltasunagatik, gauzak ondo egiteagatik eta, batez ere, zuon hurbiltasun eta gizatasunagatik.

Gizarte komunikabideoi: eskerrak ematen dizkizuegu berri zoritzarreko eta mingarri hau (berezi biktimentzat eta beren senideentzat) zorrotasun eta errespetuz jaso duzenoi, horrela izan da-eta kasu gehienetan. Gainerakoei: zorrotasuna eta errespetua, errespetua eta zorrotasuna. Biktimentzat, beren senideentzat eta kideentzat, oso gogorra da –gertatutakoa zein gogorra izan den kontuan hartuta- irudi eta testu batzuk ikusi eta entzutea. Hedabideren batek egiazat jo izan dituen –eta beste batzuek iturri

horiek zalantzan jarri gabe kopiatu egin dituzten- informazioaren alderdi batzuk ez dira egia. Esate baterako, gauza batzuek gertatutakoa desitxuratu baizik ez dute egiten:

- asteartez jakinarazi zen kanporatzea (eta ez ostegunez, erasoak gertatu aurretik); jakinarazpen hori beste hezitzaile baten laguntzarekin egin zen, erakunde barneko protokoloek agintzen duten arabera eta erasotzailearen irteera –protokoloen arabera hau ere- bere egoerari egokitutako bitarteko berri batean lekua izateaz batera gertatuko zatekeen;
- pisuan lan egiten duten pertsonen lanbide-prestakuntza egokia dute. Zehatz-mehatz, eraso jasan duena Hezitzaile Soziala da eta Masterra du drogazaletasunetan eta –gaztea izanik ere- urte batzuetako esperientzia;
- Caritasen etxebizitza honek sei urte daramatza jarduera honekin.

Auzotarroi eta, bereziki, pisua dagoen etxebizitza-blokekooi: eskerrik asko bizikide garen urte hauetan erakutsi diguzuen ulermen eta elkartasunagatik. Gertatutakoa gertatu eta, ondoren –premiatzkoa izan gabe-, zuon etxe eta kaleetan jasan duzuen hedabideen ‘erasoaren’ aurrean lasai egon zaretelako eta biktimekiko, gainerako pisukideekiko eta Caritasekiko hurkotasuna erakutsi duzuelako. Orain arte bezala, eguneroko bizitzan elkarren eskutik joateko elkarriketan jarduteko borondatean berresten gara.

Erakunde publikoei, kaltetuez eta beren senide eta ingurukoez arduratu izana eskertzen diegu. Eskerrak eman nahi dizkiegu, era berean, beren adierazpen publikoetan, eraso jasan dutenei, beren senideei, gure erakundeari eta sektore sozial honi, beren estimu eta hurkotasuna gizalegezko ikuspuntutik, gizarteratzea jomugatzat harturik, erakutsi dietenei.

Geure buruari, Elizbarrutiko Caritas erakundeari: Aurrera! Bitarteko hauetan jarduten duten pertsonen sendotasunak adoretuta, jarrai dezagun sendo gure gizarteko kaltetuenen aldeko jardunean. Eta gertaera honek ekintza sozialerako dugun eredua aztertzeraz eraman gaitzala, beti ere gizarte bazterketa jasaten duten gizon eta emakumeen aldeko arreta hobetzeari begira.

Bizkaiko gizarteari: eskerrik asko bere argitasun eta tolerantziagatik. Bizkaia aspalditik da gizarte integratzailea, abegitsua, aurreratua eta begirunetsua; giza eskubideen eta gizabanakoen, familien eta gizatalderik kaltetuenen gizarteratzearen babeslea. Ez dezagun ardura hori galdu...



## COMUNICADO DE CÁRITAS BIZKAIA

**Ante la agresión a una trabajadora de Caritas y a un usuario el pasado jueves 23 de Mayo de 2013, Cáritas Bizkaia quiere manifestar lo siguiente:**

A las víctimas de las agresiones, sus familias y allegados: nuestro apoyo incondicional y nuestro reconocimiento, nuestra cercanía ahora y en adelante. Sabéis que todas las personas que formamos parte de Cáritas compartimos vuestro dolor y vuestra tristeza, y os reiteramos públicamente nuestro apoyo. A todas las personas que os habéis interesado por las víctimas, muchísimas gracias de todo corazón. Las víctimas y sus familias nos piden que transmitamos su deseo de continuar con su recuperación alejados del ruido mediático.

A los compañeros y compañeras de profesión y de camino en la tarea: agradecer la cercanía privada y los posicionamientos públicos. Han sido innumerables las entidades sociales y personas del tercer sector que nos han hecho llegar su ánimo y apoyo en estos momentos tan difíciles. Su aliento nos ayuda a seguir en el camino...

A las personas que forman parte de Cáritas, tanto personal contratado como al voluntariado, socios y socias, donantes, miembros de la iglesia de Bizkaia en general: gracias por vuestra calma pese a las circunstancias, por vuestro apoyo, por vuestra cercanía y -en muchos casos- por vuestras oraciones. El sentido de lo que hacemos permanece intacto.

A todo el personal de Osakidetza y del Hospital de Basurto: muchísimas gracias por vuestra profesionalidad y buen hacer, y sobre todo por vuestra cercanía y apoyo humano.

A los medios de comunicación social: agradecemos a todos aquellos –la inmensa mayoría– que han tratado una noticia tan dura y triste (especialmente para las víctimas y sus familiares) con rigor y respeto; al resto: rigor y respeto, respeto y rigor. Para las víctimas, sus familias y los compañeros y compañeras está siendo muy duro –tras la dureza de lo sucedido– digerir algunas imágenes y textos. Varios extremos de la información que algún medio ha dado por ciertos –y algunos otros han copiado sin más cuestionamiento de

dichas fuentes– no lo son. Por ejemplo, hay hechos que distorsionan el relato de lo sucedido:

- la comunicación de la expulsión se produjo el martes (no el jueves inmediatamente antes de las agresiones), dicha comunicación se hizo con un educador de refuerzo como mandan los protocolos internos, mientras que la salida efectiva del agresor – también atendiendo a los protocolos– se iba a producir cuando se dispusiera de plaza en un nuevo recurso adaptado a sus circunstancias.
- las personas que trabajan en el piso cuentan con la cualificación profesional adecuada. En concreto, la persona agredida es Educadora Social, con un Máster en drogodependencias y –pese a su juventud– experiencia de varios años.
- La vivienda de Cáritas lleva seis años con esta actividad.

A los vecinos y vecinas de barrio y especialmente del bloque donde está la vivienda: gracias por vuestra comprensión y vuestro apoyo durante los años que llevamos conviviendo. Pese al suceso y al posterior –e innecesario– ‘asalto’ mediático a vuestros hogares y vuestras calles habéis sabido estar serenos y cercanos con las víctimas, con el resto de las personas del piso y con Cáritas en general. Reafirmamos nuestra disponibilidad para proseguir con el diálogo que favorezca continuar con la vida normal como hasta ahora.

A las instituciones públicas: agradecerles también el interés que han mostrado por las personas afectadas y sus allegados. También queremos agradecer a todas aquellas personas que en sus declaraciones públicas han mostrado su afecto y su cercanía a las personas agredidas, sus familias, nuestra entidad y el sector social desde una clave integradora.

A nosotros mismos, Cáritas, como parte de la iglesia diocesana: ¡Ánimo! Estimulados por la entereza de las personas que trabajan en estos recursos, sigamos fuertes en nuestra labor por los más desfavorecidos de nuestra sociedad, asumiendo la interpelación que nos hace este suceso como un acicate para la revisión de nuestro modelo de acción social de cara a mejorar la atención prestada a las personas en exclusión social.

A la sociedad de Bizkaia: agradecer su inteligencia y tolerancia. Bizkaia lleva mucho tiempo siendo una sociedad integradora, acogedora, avanzada y respetuosa; defensora de los derechos humanos y de la inclusión social de personas, familias y colectivos más desfavorecidos. No perdamos esa inquietud...